



Busturiko
Udala



Bandoa

4.- Landa-eremuetan argiteria publikoa instalatzeko oinarriak.-

Udalerriko landa-eremuetan argiteria publikoa instalatzeko Tokiko Gobernu Batzordeak ondorengo oinarri-arauak onartzea ebatzi zuen:

- 1.- Etxebizitza bakoitzeko argi-puntu bakarra jarriko da.
 - 2.- Argi-puntua etxera sartzeko erabiltzen den bide publikoaren (udalekoa edo forala) bidegurutzearen inguruetan jarriko da.
 - 3.- Argi-puntua etxebizitzaren energia elektrikoaren hornidura kontagailu partikularreara konektatuko da.
 - 4.- Argi-puntuaren instalazioa (euskarría, programagailua, argia eta kontagailurainoko hodiak barne, hori guztia Behe Tentsioko Araudi Elektroteknikoak eskatutako baldintzekin) Busturiako Udalak ordainduko du. Udalak jabeen eskaerak onartuko ditu euren ekonomia ballabideak zeintzuk diren eta udal lanak burutzeko ezartzen den lehentasuna zein den, eta jabeak argiteriaren instalazioa eskatzeko eskubiderik gabe geratuko dira.
 - 5.- Udalak ezingo balu eskaera onartu edo ez balu lehentasunezkoztat joko, eskatzaileak lana bere kabuz burutu ahal izango luke eta Udalari utzi.
 - 6.- Behin eskaera onartuta eta argi-puntua instalatu aurretik, eskatzaileak baldintza hauek (Udalak emandako ereduaren arabekoak) idatziz onartu beharko ditu.
 - 7.- Halaber, Udalak aurreko osagaien mantentze, konpontze edo aldatze gastuak ordaindu beharko ditu.
 - 8.- Argiaren kontsumoaren ordainketa zuzena kontagailuaren titularrak egin beharko du.
 - 9.- Udalak, urtero, kontagailuaren titularrari argiak kontsumitutako energia elektrikoaren ordainduko dio.
 - 10.- Aurreko ordainketa burutzeko, argiak eragindako gastuen balioespena egingo da, programatutako pizteko orduak kontuan hartuta.
- Halaber, aho batez erabaki zen egun argiteria mota hau daukaten bizilagunek (Arbek, Arriatarak, Oximbaltza Goikoak eta Pagosarretak) baldintzak onartu beharko dituztela araubidea aplikatu diezaieten nahi badute, eta kontsumitutako energia elektrikoari dagokion zenbatekoa jaso nahi badute.

4.º.- Bases para la instalación de alumbrado público en zonas rurales.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aprobar las siguientes bases que han de regir la instalación de alumbrado público en las zonas rurales del municipio:

- 1.- Únicamente se colocará un punto de luz para cada casa.
 - 2.- El punto de luz se colocará en las inmediaciones de la intersección de la vía pública (municipal o foral) desde la que se accede a la casa.
 - 3.- El punto de luz se conectará al contador particular de suministro de energía eléctrica de la casa.
 - 4.- La instalación del punto de luz (incluyendo soporte, programador, luminaria y canalización hasta el contador, todo ello con los requisitos exigidos por el Reglamento Electrotécnico para Baja Tensión) correrá a cargo del Ayuntamiento de Busturia. El Ayuntamiento atenderá las peticiones de los propietarios en función de sus recursos económicos y el orden de prioridad que fije para las obras municipales, sin que los propietarios tengan derecho a exigir la instalación del alumbrado.
 - 5.- En el caso de que el Ayuntamiento no pueda acceder a la solicitud o la considere no prioritaria, el solicitante podrá ejecutar a su cuenta la obra y cederla al Ayuntamiento.
 - 6.- Una vez aceptada la solicitud y previamente a la instalación del punto de luz, el peticionario deberá aceptar por escrito las presentes condiciones (según modelo facilitado por el Ayuntamiento).
 - 7.- Asimismo correrá a cargo del Ayuntamiento el mantenimiento, reparación o sustitución de los elementos anteriores.
 - 8.- El pago directo del consumo de la luminaria correrá a cargo del titular del contador.
 - 9.- El Ayuntamiento abonará anualmente al titular del contador la energía eléctrica consumida por la luminaria.
 - 10.- Para realizar el abono anterior se realizará una estimación de los consumos producidos por la luminaria, teniendo en cuenta las horas de encendido programadas.
- Asimismo, por unanimidad, acordó que aquellos vecinos que en la actualidad disponen de este tipo de alumbrado (Arbe, Arriatara, Oximbaltza Goikoa y Pagosarreta) deberán aceptar estas condiciones para que les sea aplicable este régimen y poder percibir el importe correspondiente a la energía eléctrica consumida.

Busturia, 2012ko urtarrilaren 4a



Busturiko
Udala

ALKATEA

Miren Fátima Malaxetxebarria Nebreda